

Dogwhistles and figleaves
How manipulative language spreads racism and falsehood

JENNIFER MATHER SAUL

Oxford: Oxford University Press, 2024, xvi+222 or.¹

Jennifer Saul (Sheffieldeko Unibertsitatea, Ingalaterra; Waterlooko Unibertsitatea, Kanada) autore ezaguna da, bai hizkuntzaren filosofian eta bai filosofia feministan, bietan egin baitu lan gogotik. Hizkuntzaren filosofia sozial eta politikoa egiten duela irakurri diot nonbait, eta goiburu egokia iruditzen zait bere lana biltzeko. Eskuartean dudan liburukoak oso ondo jasotzen ditu behinik behin. Liburuaren izenburuak euskaraz arraro samar eman dezake: *Txakur-txilibituak eta pikondo-hostoak*. *Nola hizkuntza manipulatzailak arrazismoa eta faltsukeria*² hedatzen dituen. Ingeleseztik nahiko arrunt baina euskaraz oso arrotz zaizkigun bi metafora darabiltza Saulek hor. Txakur-txilibituek txakurrek soilik entzun dezaketenean soinua egiten dute eta, horri tiraka, zenbait taldek beren diskurtsoetan erabiltzen dituzten kode-hitz batzuei egiten diete hemen erreferentzia. Ingeleseztik *pikondo-hosto* esaten dioten horri, berriz, *mahatsondo-hosto* esaten diote gaztelaniaz (“hoja de parra”), eta ezagunago egingo zaigu irudi hori akaso. Azken finean,

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet Ekain Garmendia, Kepa Korta eta Larraitx Zubeldiari, egin dizkidaten ohar eta zuzenketengatik. Lan hau egiteko, Eusko Jaurlaritzaren (IT1612-22) eta Espainiako MICIU Ministerioaren (PID2023-151480NB-I00, MICIU/ AEI/10.13039/501100011033 eta ERDF/EU) laguntzak baliatu ditut.

² Ohar terminologikoa egin behar dut hemen. Zalantza handiak izan ditut nola eman “falsehood” euskaraz. Kontzeptu garrantzitsua da Saulen lan honetan, eta ez da erraza izan horren ordezkotik egoki-egokirik aurkitzea euskaraz. “Faltsutasun”ek ez du ondo jasotzen hemen esan nahi dena —gehiago da Saulek noiz edo noiz erabiltzen duen “falsity”ren ordezkotik—. “Faltsukeria” zuzenagoa iruditu zait, eta horrelaxe erabili dut, nahiz eta jabetzen naizen euskarazko atzizkiak gehitzen diola halako kutsu negatiboa hitzari, emantzat joaz gaitzesgarria dela faltsua den hori. “Faltsukeria” diodanean, izan gogoan, beraz, faltsua den horri soilik egin nahi diodala erreferentzia, kutsu negatiborik gabe, keriak keriak.

gaitzesgarria edo lotsagarria den zerbait estaltzeko erabiltzen den hostoaz ari dira, eta, liburu honetan, arrazismoa edo faltsukeria estaltzeko erabiltzen diren hizkuntza-bitartekoei egiten diete erreferentzia. Metaforak metafora eta irudiak irudi, diskurtso politikoetan arrazakeria eta faltsukeria ezkutatzeko erabiltzen diren baliabide erretoriko eta linguistikoak aztertzen ditu Saulek lan honetan. Hizkuntzaren filosofia sozial eta politikoa, zerbait bada.

Kezka oso zehatz eta egiazko bati erantzun nahi dio lan honek. Saul kezkatua dago, ikusi duelako gaur egun zenbait politikarik arrakasta eta ospea lortu duela, nahiz eta diskurtso arrazistak edo informazio faltsuz beteak darabiltzan. Hori ez omen zatekeen gertatuko duela hamarkada batzuk. Zerbait aldatu egin da, eta ez onerako. Saulek ez dio orain lehen baino arrazistagoak garenik, edo munduko lider politikoak lehen baino arrazistagoak edo gezurtiagoak direnik; dioena da lehen ezkutatu, gorde edo nolabait zuritu egin behar zirela joera arrazistak eta gezurrak, politikan arrakasta izan nahi bazen. Azken urteetan, ordea, nabarmen arrazista diren diskurtsoak entzuten ditugu, edo ageriki faltsuak diren informazioa zabaltzen dutenak, eta, hala eta guztiz ere, hori ez omen zaie oztopo izan politikan buru ari diren zenbaiti, bidean aurrera egiteko (eta nola). Oso arriskutsutzat du aldaketa hori Saulek eta, lan honetan, azertu egiten du zergatik gertatu den, nola, noiz eta zein ondorioarekin, eta zer aterabide izan dezakeen egoera makur honek.

Ondo idatzitako liburua da, ondo josia, egitura argikoa, hizkuntza tekniko zehatza baliatuz idatzia baina ulertzen erraza, eta alferrikako korapilorik gabea. Adibidez betea dago, eta horrek asko laguntzen du gaia kokatzen, zertaz ari garen ulertzen. Saul oso argia da bere abiapuntuko kezka azaltzen, eta zehatz aurkezten ditu hipotesiak; sendo josten ditu argudioak eta datuak hipotesi horiek azertu eta gaia jorratzean.

Lan honen indargune handiena izango da, seguru asko, gaur egungo auzi sozial eta politiko bati heltzen diola, baina, aldi berean, hizkuntzaren analisisan aditu den baten begitik idatzia dagoela, eta horrenbestez zorrotz eta fin aztertzen dituela auzi horiek, diskurtsoaren eta oro har hizkuntzaren azterketa filosofiko ondo funtsatuaren gainean. Horrek kontrara ere eragiten dio, ordea. Esango nuke Saulek bi analisi maila batu nahi dituela: maila teoriko-akademikoago bat eta maila sozial-militanteago bat (ez du alferrik liburua amaitzen arrazismoaren aurka nola *egin beharko genukeen* azalduz). Irudipena daukat, liburua gogo batekin edo bestearekin irakurri, motz samar geratuko zaiola irakurleren bati: diskurtso-analisisan sakondu nahi duenarentzat, eztabaida eta auzi batzuk azaletik, arinegi aukeran, daude landuak; aldiz, arrazismoaren aurkako borrokan bide-orritzat hartu nahi lukeenak, erantzun irmo edo praktikoagoak emango ditu faltan ziurrenik. Ez dut uste benetan ahulgune zaionik hori liburuari: erdibideko lana izan nahi du, eta hori ondo egiten du. Hurrengo orrietan saiaturiko naiz, halere, Saulek arin samar edo pasaeran aipatzen dituen zenbait punturi polikiago heltzen.

Saulen kezka oso zehatza da, eta oso kokatua: Ameriketako Estatu Batuetako politikan zerbait aldatu da, eta horrek larritzen du. Berezik, 2016ko hauteskunde-kanpainaz geroztikoei larritzen

dute, Trumpen lehenengo agintaldikoek alegia.³ Ez zen espero izatekoa Trumpek irabaztea, ikusitakoak ikusita eta entzundakoak entzunda, eta, halere, Trumpek irabazi egin zuen. Urte horietakoak dira aztertzen dituen adibide gehienak. Ez denak: badaude lehenagokoak ere (Obamaren agintaldikoak, adibidez, baina baita Clinton, Bush eta Kennedyren garaikoak ere) eta badaude beste inongo politikari batzuenak ere (Ingalaterrakoak, nagusiki; Brexit garaikoak batez ere, Boris Johnsonenak gehienak). Alde horretatik, bai adibideak eta bai analisiak urruti samarrekoak egingo zaizkigu akaso batzuetan. Ezagunak zaizkigu pertsonaiak, gertaerak ere bai gehienetan, eta diskurtso batzuk entzunak ere izango ditugu askotan. Baina diskurtsoaren atzeko aldea da askotan arrotzago egingo zaiguna: AEBko egoera soziala eta politikoa ez da gurearen berdina; ez gauza batzuetan behintzat, eta ez, bereziki, arrazismoaz ari garela. Saulek azaltzen dituenak berean kokatuta ulertu behar ditugu, beraz. Hala eta guztiz ere, esango nuke ez dela zaila hemen kontatzen direnei parekoak aurkitzea gurean (edo gure ingurukoetan), eta nahi baino gehiagotan etorriko zaigula burura gertuko adibideren bat Saulek Trumpez edo Boris Johnsonez esaten dituenak irakurtzean. Saiatuko naiz horiek ere hona ekartzen.

Liburua bitan dago zatitua. Badu sarrera bat, hasteko, eta bi atal nagusi datoz ondotik. Lehenengo atala arrazismoari dagokio: atarikoak azaltzen dizkigu aurrena, gero txakur-txilibitu arrazistak aztertzen ditu, eta pikondo-hosto arrazistak hurrena. Bigarren atalean, faltsukeriarenak jorratzen ditu Saulek: informazio faltsuaren hedapena areagotu egin dela azaltzen digu, hasteko; gero, txakur-txilibituen, pikondo-hostoen eta faltsukeriaren arteko harremana aztertzen du; jarraian, ukagarriak ez diren faltsukeria agerikoak hartzen ditu hizpide; eta, amaitzeko, txakur-txilibituek eta pikondo-hostoek arrazismoaren eta ageriko faltsukeriaren aurkako borrokaz zer duten irakasteko azaltzen digu. Hitzatze labur-labur batekin amaitzen da liburua.

Egitura argia du lanak, baina, bistan denez, errepikatu egiten dira auziak eta kontzeptuak atal batean eta bestean. Atalen arteko lotura oso nabarmena da, eta adibideak ere askotan errepikatzen ditu han eta hemen. Gaika helduko diot nik edukiari, baina saiatuko naiz liburuaren egiturari ahalik eta gertuenetik jarraitzen, argiago gerta dadin.

1. Arrazakeria

Liburu honek esaten dituenak gaur egungo gizarte eta garaiari buruz esaten ditu. Azken urteetan, bereziki AEBn baina, oro har, mundu zabalean, gertatu den aldaketa bati buruz ari da Saul hemen. Hori egiteko, alegia gauzak nola aldatu diren erakusteko, ezinbestean, iragandako denboretan gauzak zertan ziren desberdin aipatzen digu. Baieztapen orokorrak egiten ditu, baina ez da orokorkerietan erortzen. Arrazismoaren mailan izan den aldaketa batez ari da, baina ez dio, orokorrean, lehen baino arrazistagoak garenik. Alderantziz: AEBn historia arrazista luzea dute (eta non ez), ez da inolaz ere kontu berria. Esaten duena zerbait zehatzagoa da: joan den

³ Liburu hau 2024an argitaratu zen eta, beraz, Trumpen bigarren agintaldia baino lehenagokoa da. Oso kontuan izatekoa da hori, Saulek kontu batzuei buruz idaztean zuena baino informazio gehiago baita ukaguk horiek irakurtzean.

mendean bazirudien sentimendu arrazistak zokoratzen ari zirela, edo joera hori zegoela. Hau da, arrazakeria bera baino gehiago, sentimendu arrazistak agerian erakusteko joera ari ziren, pixkana, ezkutura bidaltzen, zokora gordetzen. Arrazista izan edo ez, ez zegoen ondo ikusia hori erakustea, nolabait esateko. Eta, garrantzitsua dena, espero izatekoa zen joera horrek eutsiko ziola, eta gero eta zokorago utziko zirela sentimendu arrazistak, gero eta gaitzesgarriagotzat joko zela nork bere burua arrazistatzat erakustea. Espero izatekoa zen eta hala espero omen zuten adituek ere.

Baina ez da horrela gertatu. Izan ere, urteak igaro, eta hara non agertu zen Trump AEBko lehendakari. Hauteskunde-kanpainan egin zuen diskurtso baten zati bat ekartzen digu Saulek, eta behin baino gehiagotan aztertuko du gero adibide bera. Honela esan zuen Trumpek:

Mexikok bere jendea bidaltzen duenean, ez dituzte onenak bidaltzen. Ez zaituzte zu bidaltzen. Ez zaituzte zu bidaltzen. Arazo asko dituen jendea bidaltzen dute, eta eurekin dakartzate beren arazoak. Drogak dakartzate. Krimena dakarte. Bortxatzaileak dira. Eta batzuk, diot nik, jende ona dira. (Philips 2017). (17-18 or.)⁴

Musulmanei buruz ere pareko adierazpenak egin zituen Trumpek kanpainan. Saulek dio, iragandako hamarkadetako joera ikusita, espero izatekoa zela gisa horretako adierazpen arrazistek Trumpen kanpaina zapuztea, eta hauteskundeak irabazteko aukerak kamustea. Ez zen horrela gertatu, ondotxo dakigunez: estatubatuarrek Trump hautatu zuten lehendakari. Hori nola izan den posible argitu nahi du Saulek, zer aldatu ote den hango gizartean azken urte hauetan.

Hautagai politikoek beren diskurtsoetan adierazpen arrazistak egiten dituzte eta horrek ez die hautagaitzarako bidea oztopatzen, nahiz eta inork ez lukeen onartuko lehendakari arrazista nahi duenik, edo arrazista izatea onargarria denik lehendakari batentzat (tira, inor gutxi). Bi sorburu ikusten dizkio Saulek lehen begiratuan kontraesankorra ere eman dezakeen planteamendu horri. Batetik, arrazista izatea zer den oso gaizki ulertua daukagu, oro har, jende Zuriak.⁵ Bestetik, arrazismoaren zantzuak ezkututzen iaioak dira zenbait politikari, eta horretarako baliabide erretoriko jakinak baliatzen dituzte. Lehenengoarekin hasiko naiz.

AEBk arrazismo gordineko historia dauka. Behinola erabat onartua zegoen adierazpen esplizituki arrazistak egitea, onartua eta orokortua —baita diskurtso politikoetan ere, ezker zein eskuin—.

⁴ [When Mexico sends its people, they're not sending their best. They're not sending you. They're not sending you. They're sending people that have lots of problems, and they're bringing those problems with [them]. They're bringing drugs. They're bringing crime. They're rapists. And some, I assume, are good people. (Phillips 2017)]

⁵ Liburuaren lehen orrietan (xv-xvi or.), ohar tipografikoa egiten du Saulek: zalantza handiak izan dituela “Zuri” eta “Beltz” letra xehez edo larriz idatzi behar ote zituen —bietarako joerak daudelako akademian, eta bietarako arrazoirik ere ikusten omen duelako—. Larrien alde egiten du berak azkenean, eta hala egingo dut nik ere hemen, ez bada letra xeheak erabili dituen testu bati aipua egiten ari natzaiola.

Hori aldatu egin zen 1950 eta 1960ko urteetan, Eskubide Zibilen Mugimenduari esker. Urte horietatik aurrera, “Arraza Parekotasunaren araua” deritzotena hedatzen hasi zen:

Arraza Parekotasunaren araua: *ez izan arrazista.* (20 or.)⁶

Gero eta boto-emaila Zuri gehiago atxiki zitzaion arauari eta, une batetik aurrera, kopuru hori nahikoa handia izan zen politikariek sinets zezaten komenigarria zela araua ez urratzen saiatzea. Sinple jartzeko: gero eta biztanle gehiagok uste izan zuen ez zela onargarria arrazista izatea eta, beraz, politikariek pentsatu zuten ez zitzaizela komeni adierazpen arrazistak egitea.

Arau hori oso zabalduta dago oraindik ere, eta gehientsuenek betetzen dute. Zein da, orduan, arazoa? Araua oso orokorra eta lausoa dela, eta zirrikitu asko ireki zaizkiola. Saulen esanetan, Zuri askok oso goian jartzen diote langa arrazismoari; nabarmenki, nahikoa tarte uzten diote, uste izateko beraiek ez direla arrazistak, nahiz eta arraza-erresuminik (“racial resentment”) baduten. Arrazismoaz oso ideia okerra dute Zuri gehienek, izatez: oso oker daude arrazista izatea zertan datzan.

Jane Hillek (2008) “Arrazismoaren Teoria Zuri Herrikoi” (“White Folk Theory of Racism”) deritzona baliatzen du hemen Saulek, auzia azaltzeko. Teoria horren arabera, batetik, arrazak kontu biologikoa dira eta, beraz, Zuriak *biologikoki* hobeak direla uste izatean datza arrazista izatea. Horrenbestez, kulturaren edo erlijioaren mailako gutxiespenak egiten dituenak ez da arrazistatzat hartzen, ez badu azalaren kolorea edo antzeko ezaugarriren bat aipatzen. Bestetik, teoria honek dio pertsonak direla arrazistak, eta ez baieztapenak: alegia, norbaitek esan dezake zerbait arrazista kutsua duena, baina akaso pertsona hori ez da, benetan, bere bihotz-barruetan, arrazista. Beste bi puntu ere gehituko nizkioke teoria honi nik. Batetik, nahiko uste orokortua da arrazista izatea arraza *guztiak* gutxiestea dela eta, beraz, arraza edo talde bakarra gaitzesten duena ez dela arrazista (“Ez daukat ezer Beltzen kontra, Ijitoak dira ikusi ezin ditudan bakarrak”). Bestetik, pentsatu ohi da alderdi ideologiko batean aurrerakoi izateak erakusten duela pertsona hori ezin dela diskriminatzailea izan *inongo alderditan*. Adibidez: sare sozialetan ikusi berri dut israeldar bat esaten zentzugabea dela Israel estatu arrazista dela pentsatzea, izan ere, ezagun da zein irekia den Israel gayen eskubideei dagokienez. Puntu gehiago ere gehi geniezazkioke teoria herrikoi honi, seguru.

Arrazismoari horren langa garaia jartzen dionez, teoria honek gauza asko onartzen ditu norbait ez dela arrazista erakusten duen ebidentziazat. Seguru asko ezagun egingo zaigu Saulek hemen darabilen adibidea: norbaitek lagun arrazializatuak izate hutsa sarri erabili ohi da norbait hori ez dela arrazista defendatzeko. Berdin balio du honek, diot nik, bestelako diskriminazio-moduekin ere: zenbat jende ez ote da gogoratzen bere lagun gay guztiez, homofobia eztabaida baten erdian.

Teoria orokor eta lauso honen ondorio da, bistan denez, arrazistak gutxi eta bakanak direla. Arrazistak jende mota oso jakina dira, gauza oso jakinak eta zehatzak esaten dituztenak, eta bai,

⁶ [Norm of Racial Equality: *don't be racist.*]

gaitzesgarriak dira, deitoragarriak eta guztiz baztertzeak. Irudi gogor horrek eman dezake arrazista izatearen larritasuna azpimarratzen duela, baina kontrako ondorio makurra du: arrazistak munstro arraro batzuk direla dirudi, eta nekez irudituko zaio inori bere lagunak, bizilagunak, lankideak edo norbera gisa horretako izaki gaitzesgarria denik.

Arrazista izatea, ordea, ez da, inolaz ere, Teoria Zuri Herrikoi horrek dioena. Saulek azaltzen digunez (26 or.), arrazismoaren teoria batek honakoak jaso behar ditu, gutxienez: banakoak bakarrik ez, arrazista izan daitezke baita ere hitzak, erakundeak, legeak eta bestelakoak; banakoak izan daitezke arrazistak munstro izan gabe ere; izan gaitzke arrazista, arrazak biologikoki definiturik ulertzen ez baditugu ere; eta arrazismoa ez dagokie uste kontzienteei soilik, arrazistak izan daitezke fenomeno ez horren kontzienteak edo jarrerak ere.

Teoria Zuri Herrikoa oker dago eta, halere, oso hedatua dago Zuriaren artean. Arrazoa sinplea da: oso eroso da Zuriontzat. Azken batean, gu eta gure ingurukoak ez garelako arrazista gaitzesgarriak sinestea ahalbidetzen digu.

Tira, ez dugu denok egiten hori, ez gara denok zaku berean sartzekoak gai honi dagokionez. Liburuan zehar behin eta berriz baliatuko duen hiruko sailkapen bat egiten du hemen Saulek. AEBko biztanlerian hiru talde orokor bereiz ditzakegula dio, bai orain arrazismoaz ari garela, bai gero faltsukeriaz eta konspirazio-teoriez ariko garenean. Lehenengo taldekoak arauaren aurka daudenak dira: arrazista esplizituak. Bigarren taldekoek araua onartzen dute, baina erraz konbentzi daitezke horretaz gehiegi ez arduratzeko. Hirugarren taldekoak arauaren defendatzaile irmoak dira: araua ulertu eta betetzen dute, eta gai dira arau-haustea egoki atzemateko. Hiru talde horietako biztanleak elkarri mokoka jartzea giltzarri izan omen da arrazismoari diskurtso politikoetan bidea irekitzeko.

Saulek bigarren taldetzat hartzen duen horrek garrantzi berezia du aztertzen ari garen auzian. Izan ere, arrazista izan nahi ez, baina horren alde indar handiegirik egiteko prest ez dagoen jende hori da, hain zuzen, diskurtso arrazista-baina-disimulatu horren bidez limurtu nahi dutena. Eta hori lortzeko, baliabide erretoriko zenbaitetan datza gakoa. Hori da Saulek diskurtso-arrazisten gorakadari ikusten dion bigarren sorburua, eta horri helduko diot jarraian.

2. Txakur-txilibitu arrazistak

Liburuaren puntu batean (21 or.) aipatzen du Saulek, akaso, arauak ez ote duen agintzen ez zaitzatela *arrazistatzat har*, eta ez ez zaitezela arrazista izan. Asmatzen duela uste dut, nahiz eta ez duen puntu hori garatzen. Izan ere, arrazismoa gehiago edo gutxiago inporta, denok dakigu gaizki ikusia dagoela “arrazista ematea”. Adibidez, denok dakigu ezin ditugula zenbait hitz erabili:⁷ ingelesez ezin da “nigger” esan, euskaraz dagoeneko jakingo ahal dugu ez genukeela “hezurbeltz” esan behar, eta horrela. Ez da arau txarra, baina ondorio txar bat baduela iruditzen

⁷ Ingelesez “slur” esaten zaie: “[*Slur* deritzona] gorroto-diskurtso mota bat da; horren helburua banakoak mintzea da, talde bateko kide izate hutsagatik” (Popa-Wyatt 2020). [Slurring is a type of hate speech meant to harm individuals simply because of their group membership.]

zait: eman dezake hitz batzuk direla gaitzesgarriak eta, horiek erabiltzen ez badira, salbu garela. Adibidez. Lagun bat lau urteko semearekin zihoan kalean, eta gizonezko batek katean zeraman txakurrarekin jolasean gelditu zen semea. Gizonak, hizketa txikian, lagunari zera esan zion: “Pozik ibiltzen da haurrekin jolasean. Atzo bertan, horrelakoxe beste batekin ibili zen puska batean, biak kontentu”. Lagunaren semea Beltza da. Gizon hark bazekien ezin zuela “Beltz” esan haren semeaz aritzeko; horren orde, “horrelakoxe beste bat” esan zion. Seguru nago, bere ustetan, arrazista ez izatea lortu zuela. Lortu zuena, niri galdetzen badidazu, kontrakoa da: argi utzi zuen ume hark duen gauzarik nabarmenena, aipatu beharrik ere ez dagoena, beste batekin alderatzean kontuan izango genukeen ezaugarri bakarra, beste baten “horrelakoxea” egiten duena, bere azalaren kolorea dela. Zerbait arrazista esatea ez da, inolaz ere, hitz gaitzesgarri batzuk erabiltzea (soilik). Ikuskera horri “arrazismo daltoniko” esaten zaiola azaltzen digu Saulek, Bonilla-Silva (2002)ri jarraiki.

Azken urteetan politikariek diskurtso arrazistak egiten dituztela diogunean, ez dugu esan nahi *slur* direlakoak erabiltzen dituztenik. Beste zerbait da, zerbait sofistikatuagoa: sotilagoak diren hizkuntza-baliabideak erabiltzen dituzte mezu arrazistak hedatzeko entzule (eta, bereziki, boto-emaile) dituztenei. Hasteko, txakur-txilibituak erabiltzen dituzte. Horien bidez, entzuleen arraza-erresuminak piztea lortzen dute, baina nabarmenegi izan gabe. Zehatzago esateko: Arraza Parekotasunaren Araua urratu dela ezkutatzeko balio dute. Bi modutara egiten dute hori, bitan bereizten baititu txilibituak Saulek.

- **Kode irekiko txakur-txilibituak.** Arraza Parekotasunaren Arauaren kontra dauden taldekoekin komunikatzeko erabiltzen dira, alegia mezu arrazista bat gustura jasoko duten haiekin. Irekiak dira, espero baita talde horretakoek esplizituki ulertuko dutela komunikatu nahi zaiena. Taldetik kanpo daudenek ez dituzte ulertuko, ordea —horregatik dira kode—. Adibidez, supremazista Zuriak Thorren mailua aipatzen omen dute, indar ariarrari erreferentzia egin nahi diotenean. Kode hauek ondo ezagunak izan ohi dira taldekoen artean, baina badute abantaila bat oso handia: kargu hartuz gero, erabili duenak esan dezake gaizki ulertu zaiola esan duena, ez zuela inolako koderik erabili nahi —ukagarriak (“deniable”) dira—.

- **Ezkutuko eragina duten txakur-txilibituak.** Entzuleak ohartu gabe, haiengan jokaera jakin batzuk piztea helburu duten txilibituak dira —araua urratzen duten jokaerak, zehazki—. Arraza-erresuminak piztea dute helburu, oro har. Adibidez, Saulek dio AEBn joera nabarmena dagoela “barrualdeko hirigune” (“inner city”) esatekoa eta, horrekin, entzuleek, kontziente izan gabe ere, ulertzen omen dute biztanleria Beltzari egiten ari zaiola erreferentzia hitzuna.

Hizkuntza-baliabideak dira hemen Sauli gehien interesatzen zaizkionak, eta horietan jartzen du arreta liburuan. Halere, azaltzen digu hizkuntzaz bestelako bitarteko batzuekin ere egiten direla txilibituak, politikan oro har eta ideia arrazistak zabaltzeko zehazki. Esate baterako: Hitlerren otordu gogokoena arrautza-opiltxoak eta entsalada omen zen, eta Austrian ohiko bihurtu omen da egun jakin batzuetan otordu horixe eskaintzea zenbait tabernatan, eta bazkaltiarrek otordu horren argazkiak zabaltzea sarean. Irudi horrek kode irekiko txakur-txilibitu gisara funtzionatzen du neonazientzat —ez baitute denek ulertuko, baina dakienak badaki—.

Txilibituen funtsezko alderdi bat da, zenbait jendek nahi gabe, jabetu gabe alegia, erabiltzen dituela. Ikusi duzu akaso lagun bat arrautza-opilen eta entsaladaren argazkia jartzen sare sozialetan eta gauza bera egin duzu zuk, ondo jakin gabe zergatik ari den jendea hori egiten edo zer esanahi duen otordu horren argazkiak *batzuentzat*. Nahi gabeko erabilera horiek oso arriskutsuak dira. Hasteko, txilibituak berariaz darabiltzanak beti izango duelako horrela aukera, bere burua zuritu nahi badu, esateko bera ere nahi gabe ari zela, ez zuela txilibituaren mezu ezkutua ezagutzen. Bestalde, arriskutsuak dira nahi gabeko erabilera horien erruz zenbait auzi eta gairen eztabaidak txilibitu arrazistaz bete direlako, eta nekez albora ditzakegulako honezkero: gastu publikoaren auzia aipatzen du Saulek adibidetzat.

Txakur-txilibituak baliabide oso eraginkorrak dira ideia arrazistak hedatzeko, kontzienteki edo nahi gabe, modu irekian ala ezkutuko eraginez. Ez dira, ordea, politikarien diskurtsoetan aurkituko ditugun baliabide bakarrak.

3. Pikondo-hosto arrazistak

Trumpi bozka eman zioten askok pentsatu zuten Trumpi babesa ematea ez zela arrazista bati babesa ematea. Nola edo hala, moldatu ziren uste izateko hark esandakoek ez zutela Arraza Parekotasunaren Araua urratzen. Trumpek pikondo-hostoak erabili zituen bere diskurtsoetan hori lortzeko.

R esaldiari eta A entzuleriari dagokien F **pikondo-hosto arrazial** bat hizketa-zati bat da, eragozten duena Ak zuzenki ondorioztatzea (a) R (hizketa-zatia) arrazista dela, edo (b) Rk erakusten duela R esaldia egin duen pertsona arrazista dela. (90 or.)⁸

Sinple jartzeko: diskurtso (zati) bat arrazista dela ezkutatzeko erabiltzen diren hizkuntza-baliabideak dira. Lotsagarri dena estaltzeko balio duten hostoen irudiari tiraka, diskurtsoaren arrazismo gaitzesgarria estaltzen dute baliabide hauek. Berriz ere, bereizi ditugun hiru taldeen artean erdikoari zuzentzen zaizkio: arrazista izan nahi ez baina horretan indar handiegirik jartzen ez duten haiei. Bi modutara joka dezakete: sinkronikoki, ageri diren esaldiaren arrazismo-kutsua estaltzeko; edo diakronikoki, iraganean egindako diskurtso arrazista bat estaltzeko —iragandako diskurtso hura arrazistatzat kritikatu izan ondoren, normalean—.

Era askotako adibideak jartzen ditu Saulek. Batzuk oso gertuko egingo zaizkigu: “arrazismoaren ukatze” esaten diona, adibidez. “Ez naiz arrazista, baina R” esatean datza, funtsean. Saulek dio, eta oso ados nago, esaldi bat “Ez naiz arrazista, baina...” hasten bada, seguru asko ondotik datorrena ageriki arrazista izango dela. Hemen ere oso zabalduta dagoen esapidea da; izatez, Gipuzkoako herri batean pankarta jarri omen zuten: “Esaten baduzu ‘ez naiz arrazista, baina...’, arrazista zara”. Halaber, hosto diakroniko ohikotzat aipatzen digu lehen txilibitutzat ere aipatu duen bat: arrazistatzat kritikatu duten norbaitek maiz erantzungo du “Nola baina! Nire lagun

⁸ [A racial figleaf F for an audience A and utterance R is a bit of speech which blocks A from correctly concluding that either (a) R (the bit of speech) is racist; or (b) R indicates that the person who uttered R is racist.]

asko Beltzak dira”. Trumpek askotan erantzun omen die horrela arrazismo-salaketei. Beste bide bat, berdin orokorra, izan omen daiteke bat txantxetan ari zela argudiatzea.

Atalaren amaieran, “giza pikondo-hosto” deritzona azaltzen digu Saulek: beste norbaitek egin izan balu arrazista emango zukeen esaldi bat egin, eta horren arrazismo-kutsua estaltzen duen pertsona da. Alegia, hauteskundeetako mitinean mahaira esertzen den pertsona arrazializatua, edo Espainian ezagun egin zen “VOXeko Beltza”, kasu. Arrazakeriarekin ez eta feminismoarekin lotura duen kasu bat izan berri da Espainiako politikan duela oso gutxi. Abortuari buruzko eztabaida betean, eta abortu-eskubidearen aurka jokatu izana egotzi zaionean, honela defendatu du Madrilgo presidente Isabel Díaz Ayusok bere burua: “Azalduko dizut emakumea naizela, emakume librea naizela, beti izan naizela, bi haur bi haurren galera sufritu dudala, tamalez bi aldiz sufritu dut abortuaren drama, badakit zer den”.⁹ Alegia, Ayusori aurpegiratu zaionean abortuari buruzko bere postura ez dela onartzekoa, erantzuna izan da bera emakumea dela, abortua bere hezurretan sufritu duela eta, beraz, ezin egotzi zaiola berari halakorik. Giza pikondotzat du Ayusok bere burua, bistan denez.

Saulek zerrenda honetan aipatzen duen beste baliabide bat zehar-estiloa da, alegia esan nahi duguna beste norbaiten hitzetan jartzea. Zerbait arrazista zuzenean esan ordez, esatea “Jendeak dio R”, edo “Batzuek pentsatzen dute R”. Horrela, esan nahi dena mahai gainean jartzen da, baina horrekiko ardurarik hartu beharrik gabe. Estrategia honi bidea asko zabaltu diote sare sozialek: birtxioek, aipamenek eta “atsegin dut” direlakoek norbaitek esandakoak hedatzen dituzte, baina oso argi utzi gabe zer ardura duen horiekiko zabaltu dituenak —birtxiokatu, aipatu edo atsegingo baitzituen, baina *esan*, ez ditu esan—. Hizkuntzaren analisisan gai beroa da hori: komunikazioa hitzunaren konpromisoan oinarrituta azaldu nahi dugunean, sare sozialetako eta, oro har, online komunikazioko diskurtsoak labainkor eta sailkatzen zailak dira. Azterketa-ildo oso interesgarriak zabaltu dira honen bidetik (ikus, esaterako, Marsili 2021a).

Saulek dezenteko zerrenda egiten du pikondo-hostoena. Adibideak ere askotarikoak erabiltzen ditu, eta horrek asko laguntzen du auzia kokatzen. Alabaina, askotariko izate horrek nolabait kontzeptua lausotu ere egiten duelakoan nago: hostotzat azaldu dizkigun kasu batzuk zalantzarri egiten zaizkit niri. Bere definizioaren arabera, hasieran, badirudi pikondo-hostoak esapideak edo hizketa-zatiak direla —“Ez naiz arrazista, baina...”, esaterako—. Zerrendan aurrera egin ahala gehitzen dituen batzuk, ordea, ez dira esapide. Zehar-estiloan aritzea, adibidez. Esan genezake “Beste batek esana da”, “Batzuek uste dute” eta horrelakoak direla kasu honetan pikondo-hostoak, baina, esango nuke, batetik, orduan zerrenda amaigabea eta oso orokorra onartu beharko genukeela, eta, bestetik, zehar-estiloaren kasuan ez dela garrantzitsua zein esapide baliatzen duen hitzuna zeharka ari dela erakusteko. Inporta duena diskurtso-modua da, ez hori erakusteko erabili duen esapidea. Alde horretatik, esango nuke aurrekoen desberdin samarra dela, eta ez zaiola ondo egokitzen Saulen definizioari. Edo, nola esan, Saulen definizioak zehatza izan nahi duela baina definizio horren barruan sartu nahi dituen

⁹ [“Le voy a explicar que soy mujer, que soy una mujer libre, y que lo he sido toda mi vida, que he sufrido dos bebés la pérdida de dos bebés, he sufrido dos veces por desgracia el drama del aborto, sé lo que es.”] Hemen ikus daiteke hitzartze osoa: <https://www.youtube.com/watch?v=cE5MusvDPGc>

kasuak askotarikoak direla, eta azkenean pikondo-hostoez ematen digun hurbilpena nahi zukeena baino lausoagoa eta labainkorragoa dela.

Zerrendak zerrenda, atal honetan oso argigarri egiten dena Saulek hostoen arriskuari buruz esaten duena da. Siple jartzeko, esaten du hostoek laguntzen dutela elkarriketa batean onargarri dena pixkana aldatzen. Elkarriketak, Griceri tiraka (1967/1989), ekintza kooperatiboak dira, eta elkar ulertzeko saiakeran zenbait informazio onartu, moldatu eta egokitu egiten dugu. Egokitzen dugun horretan asuntzio arrazistak sartzen laguntzen dute pikondo-hostoek; izan ere, esaldi arrazista esplizituak nekez onartuko dira onargarri denaren baitan, eta ezin molda daitezke erraz, ezin egokitu daitezke onargarri denera. Pikondo-hostoaren azpian ezkutatuta errazago egiten dute bide hori, horra hor gako. Baliabide hauek errepikatzearen errepikatzez, ohitu egiten omen gara, normalizatu egiten omen ditugu zenbait ideia eta asuntzio, eta, horrela, behinola harrigarri zitzaigunak arrunt emango du laster.

Erdibideko, erdi-ezkutuko, diskurtso arrazista hauek beste ondorio bat ere badute. Arrazistatzat salatzen direnean, kartsuki kexatzea da ohiko erreakzioa: esatea diskurtso horretan arrazismorik ikusi duena sentiberegia dela. Bidenabar, horren bidez Zuri biktimizazioa indartzen omen dute —ezkertiarrek Zuri kontra ari direlako ustea, kritikatzekorik ez dagoen horretan ere aitzakia bila—. Horrek, esan beharrik ez dago, arrazismoa eta arraza-erresuminak areagotzen ditu. Puntu honetan, beste askotan bezala, feminismoarekin paralelismoa nabarmena da, nire ustez: gure gizartean ere hedatzen ari da feministak gizonen aurka ari direlako ideia, benetako biktimak gizonak direlako susmoa, feminista sentiberegien irudia.

Arrazismoaren erabat alboratu gabe, faltsukeriaren auzia aztertzen du Saulek liburuaren bigarren erdian.

4. Pikondo-hostoak eta txakur-txilibituak faltsukeria zabaltzeko

Gure garaiko gizarteaz ari garela, ohiko-edo bihurtu da egia-osteaz hitz egitea. Saulek dio goiburu horrek ez duela mesederik egiten: ematen baitu egia ez dagoen garaia dela gurea, eta hori okerra da.¹⁰ Dena den, arrazakeriarekin egin duen gisan, hemen ere onartzen du, aldatu, aldatu dela zerbait: gure kultura politikoan ageriko faltsukeriak onarpen soziala irabazi du, eta hori bada gure garaia zor zaion zerbait berria, iraganean gauzak bestelakoak omen ziren eta.

Ez ditzagun gure buruak engaina: politikan egiak ez du inoiz leku nabarmenegia izan, eta gezurrak ia onargarritzat (edo onartu beharrekotzat) ere ikusi izan dira. Halere, Saulen hitzetan, joan diren garaiekin alderatuz gero, azkenaldian izan da aldaketa bat, eta oso arriskutsutzat eta larritzat dauka. Trumpen aroarekin lotzen du aldaketa hau ere, eta adibide asko jartzen ditu: argazkiek kontrakoa erakusten badute ere, nola Trumpek eta haren jarraitzaileek oraindik ere

¹⁰ Egia-ostearen kontzeptuaz gauza interesgarriak esaten ditu Saulek, baina ez naiz horretan sartuko hemen, hariari eutsi nahi diot eta. Gai horretan sakontzeko, ikus, adibidez, McIntyre 2018 edo Zubia *argitaratzeko*.

defendatzen duten Trumpen irekiera-saioan jende gehiago izan zela Obamarenean baino; COVID-19a adarjotzea zela esan zuten, edo musukoek oxigenoa murrizten zutela, edo lixiba hartzea erremedioa izan zitekeela; edo Qanon konspirazio teoria, zenbait politikarik haurrak bahitu eta haiekin erritu satanikoak egiten dituztela dioena. Adibide horiek, Saulen ustez, badute zerbait desberdina aurrekoekin alderatuta: oso agerikoa da faltsuak direla eta, halere, oztoporik gabe hedatu dira.

Gure garaian, faltsukeriei lotuta, aldatu den beste gauza nabarmen bat, Saulen iritziz, zera da: konspirazio-teoriek gora egin dute (Qanon eta Covid konspirazioak ditu adibide hemen). Berriro ere, arrazakeriarekin eta faltsukeriarekin egin duen gisan, argitzen du konspirazio-teoriak, izatez, ez direla ezer berria (juduen aurkako konspirazioak edo Kennedyren hilketari buruzkoa aipatzen ditu). Aldatu dena zerbait zehatzagoa da: nabarmenki sinesgaitz eta arriskutsu diren konspirazio-teoriek paper handiagoa dute orain gure diskurtso politikoan. Gisa horretako teoriak ez ziren lehen diskurtso politiko *mainstream*aren parte; orain, bai. Erretorikak izan du aldaketa horretan eraginik, eta hori nola den posible azaltzen du Saulek segidan.

Arrazakeria estaltzeko erabiltzen diren modu bertsuan erabiltzen dira hostoak eta txilibituak faltsukeria estaltzeko. Helburua Egiatitasunaren Araua urratu dela ezkutatzeko da. Arau horrek honela dio: “**izan egiati**” (136 or.),¹¹ eta oso onartua da, baina baita interpretazio askotara irekiegia ere, “ez izan arrazista” arauarekin gertatzen zen bezalaxe. Honela laburtzen du Saulek puntu hau:

Labur esanda, hau da panorama: hiltun bat nahikoa egiati izaten ari ez dela-eta kezkatu daitezkeen horiek lasaitzeko balio dute pikondo-hostoek. Txakur-txilibituek, bereziki Kode Irekikoek, konspirazio-teoriak hedatzeko balio duten mezuak kodetuta igortzea ahalbidetzen dute. Bi horiek batera halako diskurtso-ingurunea eratzen lagundu dute, ageriko faltsukeriaz eta nabarmenki ezinezko diren konspirazio-teoriez betea, eta ingurune horretan badirudi politikariek ez dutela prezio handiegirik ordaintzen horrelakoak zabaltzeagatik. (135 or.)¹²

Arrazismoaren auziarekin alderatuta, faltsukeriarenak badu alderdi bat oso labainkor egiten duena. Izan ere, inor gutxi onartuko luke ondo dagoela, egoera jakinetan, arrazista izatea. Aitzitik, oso ohikoa da pentsatzea faltsukeria, oro har, txarra dela, baina onargarri dela *egoera jakinetan*. Gezurra esatea onargarri da, adibidez, edukazioagatik, adeitsu izan nahi dugulako, edo inor babesteagatik —hala onartuko genuke gehienok—. Horrek bidea irekitzen omen du, komeni denean, zalantza sortzeko ea halako-edo-halako testuingurutan benetan horren txarra den zerbait faltsua esan izana.

¹¹ [The Norm of Truthfulness...: **be truthful.**]

¹² [Briefly, the general picture will be this: figleaves serve to reassure those who may worry that a speaker is not being sufficiently truthful. Dogwhistles, specifically Overt Code dogwhistles, allow the coded transmission of messages that serve to spread conspiracy theories. Together these have contributed to a discursive environment that is rich in blatant falsehoods and wildly implausible conspiracy theories, and one in which politicians seem to pay little price for propagating these.]

Labainkortasun horri eragiten dio, baita ere, hizkuntzaren azterketa pragmatikoan auzi beroa den beste honek: zer esan nahi du, zehazki, egia esateak, edo gezurra esateak? Galdera inozentea eta erantzun sinplekoa eman dezake, baina ez da inolaz ere horrela. Hasteko: egia *esan* egin behar da, ala berdin izan behar dute egiazko esan ez baina beste inola komunikatu ditugun horiek (inplikaturek, esaterako)? Oso eztabaidagarria da ea egia den zerbait esan eta horrekin faltsua den zerbait komunikatu duen hiztunak gezurra esan duen edo ez; edo, nahi bada, ea hori egitea zerbait faltsua *esatea* bezain gaitzesgarria den. Ez dago adostasun erabatekorik gaia jorratzen ari diren autoreen artean; izatez, Saul eta neroni ere ez gentozke seguru asko bat puntu honetan (Saul 2012; Garmendia 2023, 2025). Honekin lotu-lotuta dagoen beste alderdi bat zera da: faltsua den zerbait ezin dela *esan* onartuta ere, horrek esan nahi al du ezin dugula faltsua dena galdetu, iradoki, agindu edo bestelakorik? Izan ere, galdera bat, izatez, ezin da faltsua *izan* —beraz, eman dezake ez dela bere horretan (gezurra esatea bezain) gaitzesgarria—. Itxi gabeko beste auzi bat hizkera iruzurtiaren pragmatikan (Marsili 2021b, Stokke 2013).

Teoriaren mailako auzi abstraktu samarretara jauzi egin dugula eman dezake, baina horiek gure gaian duten eragina nabarmena eta oso zuzena da. Izatez, Saulek dioenez, faltsukeria estaltzeko erabiltzen den pikondo-hosto ohikoena galderak egitea da. Adibide gordina jartzen digu: 2000. urtean, George W. Bushen aldeko kanpainaren baitan, bozka-inkestan jendeari galdetu omen zioten “John McCainen alde bozkatzeko joera handiagoa ala txikiagoa izango zenuke... sasiko ume beltz bat izan zuela jakingo bazenu?” (144 or.).¹³ Bozka-emaileen arrazismoa pizteko taktika nabarmena da, baina, nola begiratzen diogun, *esan*, ez zuten ezer faltsurik esan.

Galderak egiteak bezalaxe balio dezakete pikondo-hostotzat zehar-estiloak, zerbait “jende askok esana” dela baieztatzeak, hiztuna txantxetan ari zela esateak, edo antzeppen hutsa (“performance”) zela defendatzeak. Bada bat zerrenda honetan gehitzen duena, harrigarri samarra dena: zerbait faltsua esatea, baina segidan atzera egin eta esatea gaiaz ez dakigula ezer askorik. Horrela jarrita arraro samar eman dezake, baina ingurura, eta atzera, begiratzuz gero, seguru asko ez zaizkigu horren arrotz egingo ezjakintasunari gorazarre egiten dioten politikarien irudiak, politikari baldarraren figurak, hizketan trakets eta oinarri handirik gabe ari direnak. Baldar eta trakets akaso, baina informazio faltsua hedatzeko baliagarri dira.

Txakur-txilibituek ere balio dute faltsukeria barreiatzeko, konspirazio-teoriei lotuta bereziki. Qanon teoriarezaleek, esaterako, barra-barra erabiltzen omen dituzte memeak eta siglak kode gisara sare sozialetan: adibidez, WWG1WGAk esan nahi du “bat doan tokira goaz denok” (“where we go one we go all”). Ez dira kodeak erabiltzen bakarrak: pizzaren eta azenarioaren emojiak txertoen aurkako COVID konspirazio-teoriazaleen kode dira. Internet da konspiratzaileen lurrik emankorrena.

¹³ [Would you be more or less likely to vote for John McCain . . . if you knew he had fathered an illegitimate black child?]

Txilibitu eta hostoen bidez, bada, faltsukeria nabarmen eta agerikoz beteriko diskurtsoak ugaritu dira politikan. Bereziki, konspirazio-teoriak hedatu dira. Giro horrek bidea ireki die, Saulen esanetan, figura autoritario karismatikoei. Orain ikusiko dugu nola.

5. Ukagarriak ez diren faltsukeria agerikoak

Orain artekoetan, Saulek aztertu dituen hizkuntza-baliabideen ezaugarri garrantzitsua izan da ukagarritasuna sortzen dutela: hiztunari aukera ematen diote atzera egin eta esateko ez zaiola ondo ulertu esan nahi zuena, gogorregi ulertu zaiola, sentiberegi, edo serioegi, edo horrela. Horretan zetzan baliabide horien abantaila nagusia, eta horregatik egin dute bidea diskurtso politikoetan. Badaude, ordea, ukagarriak ez diren faltsukeria ere: atzera-bueltarik ez dutenak, ukatzeko modukoak ez direnak. Emango luke horiek ezin izan dezaketela lekurik diskurtso politikoetan, baina argi esaten digu Saulek: begiratu Trumpi eta Johnsoni.

Hizkuntza manipulatzailaren, gezurren eta iruzurraren analisisian asko aztertu diren bi kontzeptu ekartzen ditu hemen Saulek: gezur lotsagabeak (“bald-faced lies”) eta hitzontzikeria (“bullshit”). Gezurti lotsagabeak badaki entzuleek ez dutela esan duen faltsukeria sinetsiko (hain baita agerikoa) eta, beraz, ezin esan dezakegu inor engainatzeko asmoa zuenik. Horrek auzi polita sortu die gezurren pragmatikan ari direnei; izan ere, gezurren definizioaren bila, eztabaida sortu da ea engainatzeko asmoa izatea baldintza beharrezkoa den. Gai interesgarria da eta zer esana du pragmatikan giltzarri diren zenbait noziori buruz: hiztunaren konpromisoari, baieztapenen definizioari, eta horrelakoei buruz. Saulek ez du puntu hau garatzen hemen eta pena da, baina nahi duenak eskura dauzka horretan sakontzen duten lan asko (Carson 2006; Lackey 2013; Mahon 2007; Meibauer 2011, 2014). Hitzontzia, aldiz, esaten duenaren egia-erikiko inolako ardurarik ez duen hiztun gisara aurkeztu zuen Frankfurtek (2005). Ideia honek ere hari oso interesgarria irekitzen du gezurren eta iruzurraren azterketan: ikus, adibidez, Zubia (2025a, 2025b).

Gaur egungo zenbait figura politiko azaltzeko, Saulek dio *hitzontzi lotsagabeen* kategorian jarri behar dugula begia: esaten dutena egia edo faltsua den ez diela inporta agerian uzten duten haiek dira. Hiru adibidek balioko dute. Bat. Britainia Handiko lehen ministro izateko kanpaina betean, Boris Johnsoni elkarrizketa egin zioten. Galdera: “Zer egiten duzu atsedean hartzeko, lasaitzeko?”. Erantzuna ikustekoa da.¹⁴ Johnson baldar hasten da, hau eta beste, eta esaten du egurrezko kaxekin autobusak egitea gustatzen zaiola. Esaten duena (dio Saulek eta uste du jende gehienak eta uste dut nik) faltsua da, eta Johnsoni ez zaio batere inporta egia edo faltsua den, ezta hori agerikoa izatea ere. Bestea. Trumpek dio bere inaugurazio-ekitaldian egun ederra egin zuela eta eguzki betea zegoela —argazkietan, ordea, ikusten da jendea aterkiekin eta euritako jantziekin, eta eguraldi euritsu kaskarra—. Trumpi berdin-berdin dio esan duena egia edo faltsua den, eta halaber dio berdin axolagabetasun hori agerikoa izateak. Saulek jartzen dituen bi adibide horiei hirugarrena gehitu nahi diet: bizilagunek ere uzten dizkigute perla politikak. 2025eko irailean, Madrilgo presidente Isabel Díaz Ayusok telebista espainolean esan zuen EAEko

¹⁴ <https://www.youtube.com/watch?v=gLcCZjDoWTQ>

lehendakari Imanol Pradalesek “Ayuso, entzun, pinpanpun” esan zuela bezperako mitinean. Mitinaren bideoan argi entzun daiteke, ordea, Pradalesek “Ayuso, entzun, Euskadi euskaldun” esan zuela. Ayusok esana nabarmen da faltsua, eta hori agerikoa eta erraz egiaztatzekoa da. Berdin izan dio.

Nola ote da posible horren lotsagabeki eta axolagabeki ari diren politikariek jendearen babesa jasotzea? Hemen Saulek puntu giltzarri bat seinalatzen duela iruditzen zait: politika zerbait seriotzat ez, eta entretenimendurako show gisara hartzen ez ote duen jada jende askok. Mitinak, telebistako eztabaidak, kanpaina garaiko diskurtsoak eta horrelakoak ez ote diren jada gehiago erabiltzen jendearen leialtasuna lortzeko, suak pizteko, arerioak gutxieteko... eta ez horrenbeste egia esateko. Publikoak nola erantzuten duen ikusteak ere pentsarazten omen dio politika entretenimendutzat daukatela: kirolaren parekotzat ia. Eta, ez ahaztu, dio Saulek: Trump eta Johnson, biak, politikari gisara baino lehenago egin ziren ezagun animatzaile edo artista gisara (ingelesez hitz egokiagoa dutela iruditzen zait: “entertainer”). Panorama horretan, ulergarriago gerta daiteke nola den posible egiak garrantzi handirik ez izatea.

Figura politiko hauei berezko zaien beste gauza bat zera da: baldar edo ezjakin bezainbeste diruditela kaltegabe. Izan ere, denok dakigu politikariek gezurrak esaten dizkigutela, eta engainatu egin nahi gaituztela komeni gisan. Kontrara, gezurti lotsagabe hauek, sikiera, ez gaituzte engainatu nahi beraien gezur kaskarrekin. Horrek azal dezake, agian, figura eta diskurtso horien arrakasta azkenaldikoa.

Errealitatea oso bestelakoa da, ordea. Ageriko gezurrek ez dute kaltegabetik ezer. Alderantziz. “Botere-gezur” (“power lies” edo “bully lies”) gisara erabiltzen dituzte buruzagi politikoez, jarraitzaileen leialtasuna indartzeko (173 or.). Gainera, biztanle-taldeen arteko aldea are eta handiagoa egiteko balio dute: sinesten duzu edo ez duzu sinesten, aldea dago. Gehiago: ez dira errazak salatzen kazetariarentzat. Azken batean, ageriko gezur hauek orokortu eta normaldu ahala, jendeak gero eta konfiantza gutxiago du kazetari, zientzialari edo antzeko figuretan. Eta eman dezake, azkenean, denak balio duela.

6. Arrazismoaren eta ageriko faltsukeriaren aurkako borroka

Eta horren guztiaren aurrean, zer? Egoerari aurre egiteko arrasto batzuk eman nahi ditu Saulek liburua amaitzeko. Izan ere, egoera oso larria da: bitan banaturiko biztanleria ari dira bultzatzen, lider faxistei horren erabilgarri izan zaiena han eta hemen, lehen eta beti (180 or.).

Hasteko eta behin, hizkuntza-baliabide jakinei aurre egiteko moduak garatu behar dira. Hori egiteak berehalako garrantzia du Saulen ustetan, baina, hala ere, onartzen du ez dela lan erraza: batetik, hori eginda ere asko legokeelako egiteko arrazismoari mugak jartzeko, eta, bestetik, berehala sortuko liratekeelako hizkuntza-baliabide berriak. Ez dirudi oso bide itxaropentsua, baldinbaitere. Dena den, ezer ez egitea okerragoa litzateke: hizkuntza arrazistari ezikusiarrena egitea are arriskutsuagoa litzateke. Arrazismo zantzudun diskurtsoak salatzen ez baditugu, orokortu eta normaldu egiten dira, eta hori bai arriskutsua.

Ezkorra ematen du panoramak, baina Saulek dio, hala eta guztiz, eta Trumpen garaia aldatu duen guztiarekin ere, ez dirudiela, oraindik ere, denak balio duenik. Izatez, lider hauek pikondo-hostoak eta txakur-txilibituak erabiltzeak berak erakusten du oraindik ere sentitzen dutela arrazismoa disimulatzeko premiarik. Bada zerbait. Bestalde, borrokarako teknika gisara, inokulazio-kanpainak proposatzen ditu Saulek: funtsean, jendea heztea eta trebatzea teknika erretoriko manipulatzaileen bueltan. Ez da erraza izango eta ezta erabat eraginkorra ere, baina badirudi, Saulen ustez, horixe izango dela bide bakarra.

Erreferentziak

- Bonilla-Silva, Eduardo. 2002. "The Linguistics of Color Blind Racism: How to Talk Nasty about Blacks without Sounding 'Racist'". *Critical Sociology* 28 (1–2): 41–64.
- Carson, Thomas L. 2006. "The definition of lying". *Noûs* 40 (2): 284–306.
- Frankfurt, Harry G. 2005. *On Bullshit*. Princeton, NJ: Princeton University Press.
- Garmendia, Joana. 2023. "Lies we don't say: Figurative language, commitment, and deniability". *Journal of Pragmatics* 218: 183–194.
- Garmendia, Joana. 2025. "Gezurra dirudi: hizkuntza figuratiboa, zeharkako gezurrak eta hiztunaren konpromisoa". *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 70 (1): 127–157. <https://doi.org/10.59866/eia.v1i70.292>
- Grice, H. Paul. 1967/1989. "Logic and conversation". In P. Grice, *Studies in the Way of Words*. Cambridge (MA): Harvard University Press, 22–40.
- Hill, Jane H. 2008. *The Everyday Language of White Racism*. Malden, MA: Wiley-Blackwell.
- Lackey, Jennifer. 2013. "Lies and Deception: An Unhappy Divorce". *Analysis* 73 (2): 236–248.
- Mahon, James E. 2007. "A Definition of Deceiving". *International Journal of Applied Philosophy* 21 (2): 181–194.
- Marsili, Neri. 2021a. "Retweeting: its linguistic and epistemic value". *Synthese* 198: 10457–10483. <https://doi.org/10.1007/s11229-020-02731-y>
- Marsili, Neri. 2021b. "Lying, speech acts, and commitment". *Synthese* 199: 3245–3269.
- McIntyre, Lee. 2018. *Post-truth*. Cambridge: The Mit Press.
- Meibauer, Jörg. 2011. "On lying: intentionality, implicature, and imprecision". *Intercultural Pragmatics* 8 (2): 277–292.
- Meibauer, Jörg. 2014. "A truth that's told with bad intent: lying and implicit content". *Belgian Journal of Linguistics* 28: 97–118.
- Phillips, Amber. 2017. "'They're Rapists.' President Trump's Campaign Launch Speech Two Years Later, Annotated". *Washington Post*.
- Popa-Wyatt, Mihaela. 2020. "Slurs, Pejoratives, and Hate Speech". *Obo in Philosophy*. doi: 10.1093/obo/9780195396577-0403

Saul, Jennifer M. 2012. *Lying, Misleading, & What Is Said*. Oxford: Oxford University Press.

Stokke, Andreas. 2013. "Lying and asserting". *Journal of Philosophy* 110 (1): 33-60.

Zubia Landa, Irati. 2025a. "Why not everyone can afford to be a bullshitter: How epistemic injustices also permeate bullshit". *The Philosophical Quarterly* 75 (4): 1452–1473. <https://doi.org/10.1093/pq/pqaf020>

Zubia Landa, Irati. 2025b. "On bullshit and lies: For a responsibility-based approach". *Intercultural Pragmatics* 22 (3): 571-603. <https://doi.org/10.1515/ip-2025-3006>

Zubia Landa, Irati. Argitaratzeko. "Bullshit, post-truth and discursive responsibility: Mutual lessons and implications".

Joana Garmendia
ILCLI eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saila (EHU)